

**2014ko URTARRILAREN 29an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA** **1 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2014ko urtarrilaren 29an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Eider Illarramendi Azkue and. <i>2014ko urtarrilaren 28ko 0124 dekretuaren bidez Alkatetzak emandako eskuordetzaz baliatuta</i>
<b>Bertaratutako zinegotziak</b>	Jabier Etxaburu Elu jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Alizia Osa Otxandorena and. Mikel Goenaga Gubia jn. Ane Eizmendi Alberdi and. Gari Berasaluze Ostolaza jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Maite Garrastazu Aranguren and. Maribel Albizu Barrenetxea and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Aierbe jn. Patxi Elola Azpeitia jn. Gloria Vazquez Herranz and. Irma Domingorena Zapirain and. Mariana Aranburu Garate and. Aser Lertxundi Manterola jn. M <sup>a</sup> Jose Lafuente Grasa and.
<b>Ez dira etorri</b>	Juan Luis Illarramendi Roteta jn. Jesus Arana Gomez jn.
<b>Idazkaria</b>	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Jarraian, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio udalbatzarrak. Bilkura honela bilakatu da:

## GAI-ZERRENDA

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA**

#### **a) 2013ko abenduaren 18koa**

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

### **2.- UDAL ORGANOEN KUDEAKETAREN KONTROLA**

#### **a) Alkatetzaren dekretuak: 2013ko abenduaren 16tik 2014ko urtarrilaren 24ra**

Alkatetzak 2013ko abenduaren 16tik 2014ko urtarrilaren 24ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

#### **b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2013ko abenduaren 13tik 2014ko urtarrilaren 17ra**

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko abenduaren 13tik 2014ko urtarrilaren 17ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

### **3.- KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA: AURREKONTU EGONKORTASUNEKO HELBURUARI BURUZ, ONARTU BERRI DIREN KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEEN ONDORIOZ**

Ondoren, Udalbatzarrari jakitera eman zaizkio Kontu-hartzaietzak 2014ko urtarrilaren 23an egindako txostenak, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoak, hain zuzen ere, bai Udalak bai "Zarauzko Turismo Bulegoa" eta "Zarauzko Kirol Patronatua" erakunde autonomoek onartu berri dituzten kreditu aldaketarako espedienteen ondorioz egin beharrekoak zirenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **4.- "IMANOL URBIETA" UDAL MUSIKA ESKOLAKO ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUA. HASIERAKO ONARPENA**

"IMANOL URBIETA" UDAL MUSIKA ESKOLAKO ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUari buruzko proposamen bat aurkeztu du Kultura departamentuak.

Bestalde, 2014ko urtarrilaren 8ko proposamenaren alderdi juridikoei buruzko txostena egin du Udaleko idazkari nagusiak.

Horiek horrela, eta 2014ko urtarrilaren 16an egindako bileran Kultura Ereduaren informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

## ERABAKI DU

**Lehena.-** Hasierako onarpena ematea “IMANOL URBIETA” UDAL MUSIKA ESKOLAKO ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUARI.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun naturaleko epean, interesdun orok bidezkoak iruditzen zaizkion oharrak aurkeztu ahal izan ditzan. Erakustaldiaren izapidea Udaleko iragarki-taulan eta web-orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jakinaraziko da.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik aurkeztu ezean, erregelamendua behin betiko onartutzat joko da, berriazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

### “IMANOL URBIETA” UDAL MUSIKA ESKOLAKO ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ERREGELAMENDUA

#### AURKIBIDEA

1. ESKOLAKO AGINTARITZA ORGANOAK
  - 1.1. Zerbitzuaren kudeaketarako kontratatutako enpresa edo entitatea
  - 1.2. Zuzendaritza taldea
    - 1.2.1. Zuzendaria
    - 1.2.2. Ikasketaburua
    - 1.2.3. Idazkaria
  - 1.3. Irakasleen Klaustroa
  - 1.4. Eskola Kontseilua
2. HEZKUNTZARAKO TRESNAK
  - 2.1. Eskolaren hezkuntza proiektua
  - 2.2. Eskolaren proiektu curricularrak
  - 2.3. Urteko memoria
3. FUNTZIONAMENDU ARAUAK
  - 3.1. Irakasleen arauak
  - 3.2. Ikasleen arauak
  - 3.3. Gela eta materiala erabiltzeko arauak
  - 3.4. Ebaluazio arauak
  - 3.5. Erreklamazioetarako arauak
  - 3.6. Ekintza berezietarako arauak

#### 1. ESKOLAKO AGINTARITZA ORGANOAK

##### 1.1 ZERBITZUAREN KUDEAKETARAKO KONTRATATUTAKO ENPRESA EDO ELKARTEA

Zarauzko Udalarekin izenpetutako kontratuaren arabera, zerbitzua eman, eskola kudeatu eta irakasleak kontratatzen dituen entitatea da.

##### 1.2 ZUZENDARITZA TALDEA

### 1.2.1 ZUZENDARITZA

- ^ Musika Eskolaren ordezkari eta arduradun nagusia da zuzendaria.
- ^ Ikasketaburuak ordezkatu du zuzendaria, ondorio guztiekin, bere lanpostua bete gabe dagoenean, kanpoan denean edo gaixo dagoenean.
- ^ Zuzendariak Musika Eskola zuzenduko du, eta behar diren erabakiak hartuko ditu, eskolako araudian oinarrituta.
- ^ Zerbitzuaren kudeaketarako kontratatutako enpresa edo entitateak izendatuko du kargurako eta kenduko du kargutik. Kargu horretarako, profesional bat izendatu beharko du, goi mailako ikasketetan tituluduna edo Eusko Jaurlaritzako musikarako habilitazioa duena, eta alor honetan 5 urteko esperientzia duena (dagozkion ziurtagirien bidez behar bezala justifikatuta). Izendatu baino lehen Zarauzko Udaleko dagokion batzordearen onespina jaso beharko du.

#### **Zuzendaritzaren eginkizunak:**

- ^ Eskolako legeak bete eta betearazi.
- ^ Eskolako agintaritzaren organoen bileretarako deialdiak egin eta bilerak zuzendu.
- ^ Eskolako ekintzak bideratu eta zuzendu.
- ^ Eskolako ziurtagiri eta dokumentu ofizialak sinatu.
- ^ Ikasketa-planak onartu.
- ^ Zerbitzuaren kudeaketarako kontratatutako enpresa edo entitateari eskolako ekintzei buruzko informazioa helarazi.
- ^ Agintaritzaren organoetan hartutako erabakiak aurrera eraman.
- ^ Beste musika-eskola eta ikastetxe batzuekin harremanetan egon.
- ^ Halaber, eskatzen zaizkion bestelako eginkizunak bete; eginkizun horiek lanpostua burutzeko eskatzen den kualifikazioaren arabera izango dira beti.

### 1.2.2 IKASKETABURUA

- ^ Musika Eskolako kudeaketa pedagogikoaren arduratuko den pertsona da eta Zuzendaritza ordezkatu du, bere lanpostua bete gabe dagoenean, kanpoan denean edo gaixo dagoenean.
- ^ Klaustroko irakasleen arteko bat aukeratu da, hautaketa prozesu baten bidez. Prozesu horrek publikitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideak bete beharko ditu. Kargu horretarako berretsi eta jarraitzeko, nahitaezkoa izango da karguaren egitekoak nola egiten dituen ebaluatzea. Izendatua izan baino lehen Zarauzko Udalaren onespina jaso beharko du.
- ^ Irakasten dabilzan irakasleen artean, merezimenduen lehiaketa bidez egingo da hautaketa prozesua.

#### **Ikasketaburuaren eginkizunak:**

- ^ Musika Eskolako arlo/departamentu guztien ardura izango du eta horiek koordinatzeaz arduratuko da.
- ^ Zuzendaritzaren ordezkari izatea, pedagogiarekin zerikusia duten kontu guztietan eta ikastetxearen ohiko jardunean, bere lanpostua bete gabe dagoenean, kanpoan denean edo gaixo dagoenean.
- ^ Musika Eskola antolatu, zuzendu eta kudeatzeko laguntza eta aholkuak eman Zuzendaritzari.
- ^ Musika Eskolak urtean egingo dituen Jardueren Planaren proposamena prestatu.
- ^ Eskolaren Urteko Jardueren Planaren hezkuntza-jarduerak koordinatu eta irakasle zein ikasleek bete ditzatela bermatu.
- ^ Eskola-orduak departamentuekin adostu, eta betetzen direla bermatu.
- ^ Ezarritako irizpide pedagogikoak betetzen direla bermatu.
- ^ Orientabide akademikoa eta irakasleen jarduerak koordinatu.
- ^ Zuzendaritzaren jarraibideak aintzat hartuta, emango diren zerbitzuak eta jarduerak osagarriak programatu eta koordinatu.
- ^ Eskolako materiala zaindu eta erabili ahal izateko baimena eman.
- ^ Halaber, eskatzen zaizkion bestelako eginkizunak bete; eginkizun horiek lanpostua burutzeko eskatzen den kualifikazioaren arabera izango dira beti.

Eta hala badagokio, bi lan horiek pertsona berberak egin ahalko ditu.

### 1.2.3 IDAZKARIA

- ⤴ Eskolako administrazio arloko langileen arteko bat aukeratuko da, hautaketa prozesu baten bidez. Prozesu horrek publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideak bete beharko ditu. Kargu horretarako berretsi eta jarraitzeko, nahitaezkoa izango da karguaren egitekoak nola egiten dituen ebaluatzea.

#### **Idazkariaren eginkizunak:**

- ⤴ Eskola Kontseiluko eta Zuzendaritza Taldeko kide izan.
- ⤴ Eskola Kontseiluaren, Klaustroaren eta Zuzendaritza Taldearen bileretako gai-zerrendan sartuko diren gaiak prestatu.
- ⤴ Zuzendaritzaren oniritziarekin, Eskolako bilera, erabaki eta akta guztiak egiaztatuz.

### **1.3 IRAKASLEEN KLAUSTROA**

Musika Eskolako Irakasleen Klaustroa irakasle guztien artean osatutako organoa da. Horrez gain, aztertuko den gaia zein den eta zuzendaritzak gonbidatuz gero, aholkularitza-lanak egiten dituztenak edo laguntzaileak ere etorri ahalko dira bilera horietara.

#### **Irakasleen Klaustroaren eginkizunak:**

- ⤴ Eskolaren proiektu curricularra prestatu eta onartu, bai eta hezkuntza-jardueren programa ere, Eskolaren Hezkuntza Planaren arabera.
- ⤴ Eskolaren Urteko Plana onatzen eman eta urteko memoria onartu.
- ⤴ Irakasleek ebaluazioak egiteko irizpideak zehaztu eta koordinatu.
- ⤴ Ikasleei orientabidea eta tutoretza eskaintzeko arauak ezarri.
- ⤴ Eskolan esperimendazioa edo ikerkuntza pedagogikoa sustatzeko proiektuak bultzatu.
- ⤴ Eskolako araudiarekin zerikusia duen dokumentazioa gainbegiratu.
- ⤴ Programa orokorra prestatzeko proposamenak egin Zuzendaritzari.
- ⤴ Jasotako proposamen, eskakizun, hobekuntza, kezka, txosten eta abarren berri eman Zuzendaritzari.
- ⤴ Urteko aurrekontuen kudeaketaren nondik norakoak ezagutu, eta Eskola Kontseiluan landutako gaien eta interesgarria izan daitezkeen edozein informazioen berri izan.

Irakasleen Klaustroak ohiko bilerak eta ezohikoak egingo ditu. Azken horiek, gainera, premiazkoak ere izan daitezke.

Ohiko bilerak gutxienez hilean behin egingo dira, nahitaez. Ezohiko bilerak, berriz, Zuzendaritzak berak edo gutxienez klaustrokideen laurden batek deitutakoan egingo dira. Azken kasu horretan, deialdia gutxienez bi egun baliodun lehenago egin beharko da.

Klaustrokideek nahitaez joan behar dute Klaustroaren bileretara; nolana ere, Zuzendaritzak ez joateko baimena eman ahalko die, beren zereginekin zerikusia duen beste jardueraren bat egin behar dutelako.

Klaustroan quoruma egoteko, irakasleen herena bertaratu beharko du. Quorum hori bilera osoan zehar egon beharko da, bertan hartutako akordioak baliozkoak izan daitezen. Edonola ere, nahitaez bertaratu beharko dira zuzendaria eta idazkaria edota horien legezko ordezkariak.

Bigarren deialdian nahikoa izango da hiru klaustrokide joatea bilerara.

Akordioak bozketa publiko bidez onartuko dira, klaustrokideren batek bozketa sekretua egitea eskatzen duenean izan ezik. Botoa aldekoa, kontrakoa edo zuria izan daiteke. Klaustrokideek botorik ez emateko aukera ere badute.

Erregelamendu honetan berriaz aurreikusitako kasuetan izan ezik, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketa dagoenean, errepikatu egingo da bozketa, eta berdinketa mantendu egiten bada, zuzendariaren kalitatezko botoak erabakiko du auzia.

Klaustrokideek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Zuzendariak moderatu eta antolatuko ditu debateak.

Eztabaidatutako gaiak klaustroaren eskumenetatik kanpo daudenean, kontsultatu egin beharko dira, eta horiei buruzko bozketak klaustrokideen iritzia hutsak izango dira, besterik ez.

Klaustrokideren batek hartutako erabakiaren aurkako botoa eman badu, aurkako botoa eman duela eta zergatik eman duen aktan jasoa izan dadila eskatzeko eskubidea izango du. Horrela, erabaki horrek ekar ditzakeen ondorioetatik salbuetsita geratuko da.

Klaustroaren ohiko bileretarako deialdia gutxienez egun baliiodun bat lehenago egingo da, eta deialdiarekin batera, gai-zerrenda bidali beharko da. Klaustroaren ezohiko bileretarako deialdia, aldiz, bi egun baliiodun lehenago egin beharko da, premiazko kasuetan izan ezik. Premiazko bileretarako deialdia egiteko, Klaustroaren berrespena beharko da.

Idazkariak prestatu eta Zuzendaritzak sinatuko du gai-zerrenda. Gai-zerrendari loturiko dokumentazio osoa Idazkaritzan egongo da klaustrokideen eskura.

Ohiko bileretan, gai-zerrendako azken puntua galdera-eskeak izango dira. Puntu horretara iritsitakoan ezingo dira berriro ere landu aurretik landu diren gaiak.

Ezin izango da gai-zerrendan ez dagoen gai bati buruzko erabakirik hartu. Salbuespena izango da bileran bertan klaustrokideen gehiengo osoak gai edo mozioren bat presazkotzat jotzea.

Zuzendariak zuzenduko du klaustroa. Idazkariak idatziko du akta, bertan adieraziz, bilera zein egun eta ordutan egin den, zein gai landu den eta hartutako erabakien edukia zein den, eta alde zuzendariaren onespenez jaso ondoren, hurrengo bilerara eramango da onartua izan dadin.

Zuzendariaren oniritziarekin Idazkariak akta sinatuko du eta dagokion bileran emango zaio behin betiko oniritzia. Idazkaria ez dagoen kasuetan, Zuzendaritzak beste norbait izendatuko du lan hori egin dezan.

Aktak publikoak izango dira, eta hezkuntza-komunitateko edonork kontsultatu ahalko ditu.

#### 1.4 ESKOLA KONTSEILUA

Irakasle, guraso eta ikasleen ordezkariak osatua dago.

**Eskola Kontseilua honako hauek osatuko dute:**

- a) Eskolako Zuzendaritza, Kontseiluaren lehendakari modura.
- b) Eskolako ikasketaburua, idazkari modura. Hitzaz eta botoa izango ditu.
- c) Klaustroak aukeratutako 3 irakasle.
- d) Gurasoen 2 ordezkari.
- e) Zerbitzuaren kudeaketarako kontratatutako enpresa edo entitatearen ordezkari bat.
- f) Zarauzko Udaleko alderdi politiko guztien ordezkari bana.
- g) Zarauzko Udaleko dagokion Departamentuko teknikari bat.

Eskola Kontseiluak gutxienez bilera bat egingo du ikasturtean zehar (ikasturtea amaitu eta bestea hasi baino lehen). Bilera gehiago egin ahalko dira Zuzendaritzak edota Kontseiluko heren batek hala eskatzen badute.

Bileretarako deialdia zuzendariak egingo du gutxienez 2 egun baliiodun lehenago. Deialdiarekin batera eguneko gai-zerrenda bidaliko da. Eskolako funtzionamendu hobetzeko balio dezakeen edozein puntu gai-zerrendan sartzeko eskatu ahal izango du Kontseiluko edozein kidek.

Kontseiluan quoruma egoteko lehenengo deialdian gutxienez kideen erdia agertu beharko da. Bigarren deialdian nahikoa izango da gutxienez hiru kide agertzea. Nolanahi ere, nahitaezkoa izango da lehendakariak eta idazkaritzako lanak betetzen dituztenak bertan egotea.

Aipatutako quoruma bilera osoan zehar mantendu beharko da.

Eskola Kontseiluaren erabakietarako, bilerara etorri direnen gehiengo soilaren aldeko botoa beharko da.

Ezingo da gai-zerrendan agertzen ez den gai baten inguruko erabakirik hartu. Salbuespena izango da Eskola Kontseiluko gehiengo osoak urgentziazkotzat jotzea erabakitzea.

Zuzendariak egingo ditu lehendakari lanak eta bilerak bideratuko ditu. Eskolako ikasketaburuak idazkari lanak egingo ditu: aktak egingo ditu, lekua, ordua eta eguneko gai-zerrendako puntuak, bozketa egin den modua eta emaitzak, eta erabakitako puntuak zein izan diren adieraziz. Aktak idazkariak izenpetuko ditu, lehendakariaren onespenez. Hurrengo bileran onartuko dira behin betiko.

Bozketan berdinketa egonez gero, Eskolako Zuzendaritzaren botoak erabakiko du.

**Eskola Kontseiluaren funtzioak:**

- ^ Eskolako ekintzen programazioa azaldu.

- ^ Eskolako ekintzak antolatu eta garatu.
- ^ Eskolako ekintzen programazioaren ebaluazioa egin.
- ^ Eskolako edozein arazoren aurrean erabakiak hartu, Erregelamenduan aurreikusitakoa kontuan hartuta.

Eskola Kontseiluko partaideen agintaldiak, Udaleko ordezkari, zuzendari eta ikasketaburuarenak izan ezik, 3 urteko iraupena izango du, partaide izendatu eta kargua hartzen dutenetik zenbatzen hasita.

Kontseilukidderen batek kontseilua uzten badu, ordezkatzeko duen taldeak bere ordezkari bat aukeratu du.

Kontseilukideek kargua utzi beharko dute, ordezkatzeko duen taldeko partaide izateari uzten badiote edota ordezkatzeko duen taldeak hala erabakitzen badu.

3 urteko epea igarotakoan karguak berriro egin beharko dira.

## 2 HEZKUNTZARAKO TRESNAK

### 2.1 ESKOLAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Eskolaren izaera zehazten duen kudeaketa-tresna da eta bat dator eskolaren testuinguruarekin. Bertan, Eskolak lortu nahi dituen helburu nagusiak eta antolaketaren egitura zehazten dira. Proiektu honetan, Musika Bandak behar dituen instrumentu guztien irakaskuntza bermatuko da.

### 2.2 ESKOLAREN PROIEKTU CURRICULARRAK

Proiektu curricularra ikasleek erabiltzen duten tresna bat da eta beren curriculuma osatzen duten alderdiak zehazten ditu: helburuak, sekuentziak, ebaluazioa, eta abar. Proiektu curricularrek Eskolaren Hezkuntza Proiektuan zehaztutakoa hartzen dute kontuan.

### 2.3 URTEKO MEMORIA

Agiri honetan lortutako helburuak eta egindako ekintzak zehaztuko dira. Era berean, ikasleen emaitzak, gastuen eta funtzionamenduaren azterketa, burututako jarduerak eta hurrengo ikasturterako ateratako ondorioak ere jasoko dira bertan. Eskolaren Zuzendaritzak egingo du urteko txostena, eta Klaustroaren eta Eskola Kontseiluaren aurrean aurkeztu du, aztertu eta onar dezaten. Ondoren Zarauzko Udaleko dagokion Batzordeari jakinaraziko dio, honek ere berretsi dezan.

## 3 FUNTZIONAMENDU ARAUAK

### 3.1 IRAKASLEEN ARAUAK

Irakasleek euren kontratuetan jarritako ordutegia beteko dute. Kontratuan nahitaez zehaztu beharko dira eskola-orduak eta eskola-ordu ez direnak.

**Eskola-ordu ez direnak honako zeregin hauetarako erabiliko dira batez ere:**

- a) Klaustroko bilerak egiteko
- b) Gurasoekin bilerak egiteko
- c) Informazio eta hezkuntza arloko ekintzak egiteko
- d) Lantaldeetan edo Urteko Planean aurreikusitako jardueretan parte hartzeko
- e) Hezkuntzarekin zerikusia duten lan pertsonalak egiteko

Urteko Planean zehaztuko dira ikasleen gurasoei edota tutoreei zuzendutako informazio-jarduerak. Jarduera horiek ikasleen senideak etortzeko moduko orduetan egingo dira, ikasturtearen hasieran. Gainera, gurasoekin bakarkako bilerak izateko ordutegia ere zehaztu beharko du. Zehaztutako ordutegi horretan etortzerik ez balute, beste ordutegi batzuk zehaztu beharko dira kasu bakoitzerako.

Irakasleek, beraiei dagozkien irakaslanez gain, zuzendaritza, tutoretza, ordezkari edo koordinazio arloko lanak ere egingo dituzte, erregelamendu honetan ezarritako organoen arabera.

Irakasleen ordutegia Idazkaritzaren egongo da eskuragarri. Ordutegia jendaurrean egongo da, eta hezkuntza-komunitateko edozer kidek eskatu ahalko du fotokopia bat .

Aurreikusitako ordutegia aldatzeko edo baimenak lortzeko eskaera Eskolako Zuzendaritzari egingo zaio.

Eskolako langileek erabat debekatuta dute matrikulatutako ikasleen eta/edo beren familien kontura etekin ekonomikoa ekar dezakeen inolako ekintzarik egitea: materiala saldu, klase partikularrak eman...

### 3.2 IKASLEEN ARAUAK

Matrikulazio-epa behar besteko aurrerapen eta publizitatearekin iragarriko da.

Matrikulatu nahi dutenek dagokion matrikulazio-orria beteko dute, ikasi nahi dituzten ikasgaiak zein diren adierazita.

#### Prozedura:

- a) Tokirik egonez gero, eskaera guztiak onartuko dira.
- b) Ez badago toki nahikorik, onartuen zerrenda eta itxaron zerrenda osatuko dira, eskatutako ikasgaiaren, adinaren eta ezagutzen arabera. Beharrezkoa den kasuetan, eskatzaileei deituko zaie hautaketa-prozesu bat egiteko.
- c) Nahiz eta behar beste plaza egon ez, salbuespen modura eta Kultura Batzordeak onartuta, Udalak aukera izango du ikasleak onartzeko. Gainkostu hori Zarauzko Udalak ordainduko luke.

*Araudiari buruzko oharra: erregelamendu honetan ez da zehazten onartuen zerrenda nola egiten den, eta Eskolaren eskuetan uzten du egiteko modua. Udalak puntu hau gehiago zehaztea nahi badu, gehiago garatu beharko litzateke.*

*Aurreko erregelamenduak honela arautzen zuen:*

*Prozedura honen bitartez, Eskolak ikaslearen behin-behineko matrikulazioa gauzatzen du hurrengo ikasturterako, bi prozedura desberdin jarraituz, bata Eskolako ikasle ofizialekin eta beste bat onartutako ikasle berriekin.*

*Matrikula prozesua Eskolaren barnean hasten da. Hurrengo ikasturteko ordutegia izendatzen zaie ikasle zaharrei eta ikasle bakoitzak bere ikasgaiak eta ordu banaketa onartzen ditu.*

*Proposatzen dugu aurreko urteko ikasleek bermatuta izan dezatela ikasketek jarraitu egingo dutela.*

*Proposatzen dugu Udalak ludotekarako, kanpaldietarako.. erabiltzen duen sistemaren antzeko bat erabiltzea (gizarte zerbitzuen txostena???)*

*Ikasle berrien kasuan matrikulazio-prozesua Onartuen Zerrendaren ebazpenaren arabera izango da, ordutegien aukeraketa harretarako egiten den **zozketa publikoaren bitartez egingo da**, eta matrikulazioa Eskolaren Administrazioan bertan egingo da.*

*Ikasle berriak hutsik geratu diren plazak zozketaren bidez okupatzearen alde gaude, baina Udalari eskatzen diogu hainbat neurri hartzeko (aurrekontuetan kreditu osagarria aurreikustea horretarako...) kanpoan gertu diren pertsonen multzoa ahalik eta txikiena izan dadin. Zarauztarrek lehentasuna izatea ere proposatzen dugu.*

*Legalki ezin bada, zarauztarrei / Zarauzko eskoletan matrikulatutakoei hobaria ematea proposatzen dugu.*

Adierazitakoa kontuan izanda, eta Zuzendaritza Taldearen txostena aintzat hartu ondoren, musika-hizkuntzako edo instrumentuko lehen ikasturteari behar besteko probetxurik atera ez dioten ikasleen matrikulazioa ez onartzea erabaki ahalko du Eskola Kontseiluak. Ikasle helduei (18 urtetik gorakoak) dagokienez, instrumentu baten ikaskuntzako lehen lau ikasturteak gaindituta, Eskolak erabakiko du bertan jarraituko duten edo ez, hartara, eskola-adinean dauden ikasle berriak hartu ahal izateko.

Zuzendaritza Taldeak, aurrez Zuzendaritzaren txostena aintzat hartu ondoren, dohain berezia eta musikan etorkizun handia duten gazteak onartu ahalko ditu, baita tokirik ez badago ere.

Tokia badutela baieztatutakoan, ikasleek matrikula gauzatuko dute eta dagokion udal ordenantzan onartutako prezio publikoak ordainduko dituzte.

Matrikula ordaintzeak esan nahi du ikasleek Eskolaren arauak onartu egiten dituztela. Horrenbestez, eskubidea izango dute antolaketari, funtzionamenduari, curriculumari eta beste hainbat alderdiri buruzko informazioa jasotzeko.

ikasleen beharren eta Eskolaren baliabideen arabera antolatuko dira Musika Eskolako eskola-orduak. Eskola-egutegia ikasturtearen hasieratik egongo da ikusgai iragarkien taulan.

Era berean, ikasleek nahitaez parte hartu beharko dute Urteko Planean ezarrita dauden jendaurreko entzunaldi eta emanaldietan, bai eta horietarako beharrezkoak diren entseuetan ere.



Proiektu curricularrean zehaztuta egongo dira maila eta espezialitate bakoitzeko irakasgaiak, eta zikloetan eskaini beharreko eskola-orduak, lortu beharreko helburuak, landuko diren edukiak, sekuentziazio-irizpideak, ebaluazio-irizpideak eta abar.

#### **Ikasleen eskubideak:**

- a) Bere kontzientzia-askatasuna errespetatua izatea, bai eta askatasun ideologiko, erlijioso, etiko eta morala ere, eta horiek bizitzeko modua ere bai.
- b) Bere osotasun fisiko eta duintasun morala errespetatua izatea. Ikasleek ez dute tratatu txar fisiko edo moralik edo zigorrik jasoko.
- c) Ikasleak erabakitzeke duen askatasuna bermatuko du Eskolak, eta bokazio eta lanbide arloko orientazioa emango dio, bere dohain, ezagutza eta gaitasunen arabera.
- d) Ikasturte eta ziklo bakoitzerako ezarritako gutxieneko helburuak eta ebaluazio-irizpideak zein diren jakitea.
- e) Eskola-errendimendua irizpide objektiboen arabera balioetsia izatea.
- f) Ebaluazio partzialen zein azken ebaluazioen gaineko argibideak eskatzea edo erreklamazioak egitea, erregelamendu honetan ezarritako prozeduraren arabera.
- g) Eskolaren funtzionamenduan eta kudeaketan parte hartu ahal izatea, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.
- h) Ezarritako eskola-orduak betetzea eta hezkuntza-jardueran aurreikusitako prestakuntza lortzea.
- i) Kalitatezko hezkuntza jasotzea eta Eskolak xede horretarako aurreikusita duen materiala erabiltzea.
- j) Sortzen diren ikasle-elkarteetan parte hartzea.

Zarauzko Musika Eskolako ikasleek komunitateko gainerako kideen eskubideak eta askatasuna errespetatu behar dituzte. Hauek dira zehazki betebeharrak:

- a) Hezkuntza Komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna eta askatasun ideologiko, erlijioso, moral eta etikoak errespetatzea, eta baita beren duintasun morala, osotasun fisikoa eta intimitatea ere.
- b) Zuzendariaren xedapenak eta aginduak betetzea, eta baita hezkuntza-arauetan, barne erregelamenduan nahiz diziplinan jarritako guztia ere.
- c) Eskolako instalazioak, altzariak eta ekipamendua erabiltzea eta errespetatzea.
- d) Ikasleentako bakoitzak klaseetara joateko duen eskubidea errespetatzea.
- e) Matrikula eta kuoten ordainketa egunean edukitzea.
- f) Helbide aldaketan berri ematea.
- g) Eraikinari edo Eskolako materialari eragindako kalteak ordaintzea.

#### **Ikasleen betebeharrak:**

Ikasleen oinarrizko betebeharrak ikastea da, alegia, bere dohain eta garapen pertsonalerako musika-hezkuntza egokiak eskaintzen dizkion ezagutzei probetxu ateratzea. Hauek dira zehazki betebeharrak:

- a) Eskolara joatea, Urteko Planean adostutako jardueretan parte hartzea, eta ezarritako ordutegiak errespetatzea.
- b) Ikasteari behar beste denbora eskaintzea, etxean ikastea eta irakasleek agindutako lanak egitea.
- c) Gainerako ikaskideek ikasteko duten eskubidea errespetatzea.

Nahitaezkoak diren eskola edo entseguetatik gutxienez seitarra joan ez diren ikasleei baja eman ahalko zaie dagokion espezialitatean, gaixotasun-kasuetan edota justifikatutako arrazoiak daudenetan izan ezik. Justifikatu gabeko bigarren hutsegitea gertatu bezain laster deitu egingo zaie guraso edo tutoreei.

Interes-faltagatik inolako probetxurik ateratzen ez duten ikasleak Eskolatik kanporatuak izan daitezke, honako prozedura honen bidez:

Eskola Kontseiluak, Zuzendaritza Taldearen txostena aztertu ondoren, ikasleari eta bere gurasoei edo tutoreei deituko die, egoera zein den azaltzeko eta beren alegazioak entzuteko. Hiru hilabeteko epean egoerak hobera egiten ez badu, berriro deituko zaie, Eskolatik kanporatua izango dela edo hurrengo ikasturtean onartua ez dela izango jakinarazteko.

Eskola Kontseiluak indarrean dagoen legedira joko du honako arlo hauetan guztietan: eskubide eta betebeharrak, diziplina-araubidea, arauak ez betetzea, prozeduraren bermea, preskripzioak eta ezetzak.

### **3.3 GELA ETA MATERIALA ERABILTZEKO ARAUAK**

Eskolako gelak eta ekipamenduak gehienbat irakaskuntzara bideratuta egongo dira.

Ikasturtea hasi baino astebete lehenago, irakasle bakoitzak bere ordutegia aurkeztuko du Idazkaritzan, ikasgelak erabiltzeko ordutegi orokorra osatzeko.

Espazio komunak jarduera jakinetarako erabiliko dira, momentu horretan dauden aukeren arabera, eta betiere, hezkuntza-behar guzti-guztiak betetzen saiatuz. Espazio komunak behar bezala erabiltzen direla kontrolatzeko, erregistro bat egongo da Idazkaritzan espazio horiek erabiltzeko eskaerak jasotzeko.

Iragarkien taulan zehaztutako ordutegian egongo da irekita Eskola. Dagokion ikasgaiko irakasleekin batera egongo dira ikasleak, eta irakaslerik ez badago, irakaslearen edo Zuzendaritzaren baimena izan beharko dute bertan egoteko, betiere, Eskola irekita dagoen bitartean.

Musika Eskolako gelak herritarrei zuzendutako kultura eta gizarte arloko ekintzak gauzatzeko erabili ahalko dira.

Ezin izango da halako ekintzak egiteko baimenik eman, baldin eta Eskolak eta bere elkarteek antolatutako jarduerak kaltetzen edo oztopatzen badituzte. Eskola Kontseiluak finkatuko ditu Eskolako gelak erabiltzeko lehentasun eta irizpideak.

Eskolako gelaren bat erabili nahi duten pertsona edo elkarteek idazki bat aurkeztu beharko diote Eskolako Zuzendaritzari, jarduera, data, iraupena eta zenbat gela behar dituzten adieraziz.

Gelak erabili ahal izateko Zuzendaritzaren baimena beharko da, eta sor daitezkeen gastuak ordaindu beharko dira (garbiketa, zainketa). Era berean, bermea eskatu ahalko da gerta litezkeen kalteen konponketa-gastuei aurre egiteko. Gero, berme hori itzuli egingo da, egon diren gastuak kenduta.

#### **3.4 EBALUAZIO ARAUAK**

Eskolak ebaluatzeko eta sustatzeko erabiltzen dituen irizpideak proiektu curricularrean ageri dira. Irakasle bakoitzak ikasturtearen aldi bakoitzerako programa orokorra prestatu beharko du, proiektu curricularrean ezarritako jarraibideak betez.

Ikasturtearen hasieran, helburuen, oinarrizko edukien eta ebaluazio-irizpideen berri emango diete irakasleek ikasleei eta beren familiei. Ebaluazioa pertsonalizatua eta jarraitua izango da.

Ebaluazio bakoitzaren amaieran, ikaskuntza prozesuan egindako aurrerapenaren berri emango zaie ikasleei idatziz.

#### **3.5 ERREKLAMAZIOETARAKO ARAUAK**

Ikasleek eta gurasoek, edo tutoreek, ikasturte-amaierako ebaluazioaren aurkako erreklamazioak jarri ahalko dituzte. Era berean, probak edo idatzizko ariketak ebaluatzeko erabilitako irizpideak ezagutzeko eskubidea izango dute, baita jasotako kalifikazioaren aurkako erreklamazioa jartzekoa ere, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.

Lehenik eta behin, ikasgaia ematen duen irakaslearengana joko dute. Irakasleak ikasleari buruz dauzkan agiriak aurkeztuko ditu (idatzizko probak, kalifikazioen erregistroa, egindako lanen laginak edo oharra, etab.), bai eta ebaluazio partzialen aktak ere. Erreklamatzailerak dokumentazio hori gainbegira dezakete, hala nahi izanez gero.

Ikaslearen eta bere gurasoen alegazioak entzun eta gero, irakasleak kalifikazioa bere horretan uztea edota aldatzea erabakiko du. Ikaslea eta gurasoak irakasleak hartutako erabakiarekin ados ez badaude, Eskolaren Zuzendaritzara jo ahalko dute. Zuzendaritzak, tutorearen bidez, dokumentazioa aztertuko du, bi aldeek alegazioak entzungo, eta erabaki bat hartuko, edota, bestela, erabakia hartu aurretik, beste informazio-iturri batzuk bilatuko ditu (proba berriak egingo ditu).

Azken aukera gisa, Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikora jo ahalko dute, behin betiko erabakia hartu dezan. Eskolak, Hezkuntzako Ikuskaritzak Teknikoak hala eskatuta, daukan dokumentazioa aurkeztuko du, eta egoki iriztitako alegazioak egingo ditu. Bi aldeetako batek bere erabakia aldatzen badu, hala adieraziko da bai aktan, bai ikaslearen espediente akademikoan.

#### **3.6 EKINTZA BEREZIETARAKO ARAUAK**

Jarduera berezia: Eskolaren proiektu curricularrekin bat antolatutako jarduera oro, helburu argiak eta eduki didaktikoa dituen, eta eskola-orduetatik kanpo gauzatzeko dena.

Jarduera horietakoren bat gauzatzeko Eskolak ordaindu ezin duen gasturen bat egin behar bada, ikasleei xede horretara bideratutako ekarpen ekonomiko bat eskatu ahalko zaie. Eskola Kontseiluak ikasturtearen hasieran zehaztuko du horrelako zenbat jarduera egingo diren gehienez ere eta baita zailtasun ekonomikoak dituztenentzako laguntza-sistema ere.

Jarduera horiek ezin izango dira oporraldietan antolatatu.

## **5.- UDALTZAINGOKO LAN BALDINTZEN INGURUAN 2013rako ONARTUTAKO AKORDIOA LUZATZEA**

2013ko maiatzaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak “2013rako UDALTZAINGOKO LAN BALDINTZEN INGURUKO AKORDIOA onartu zuen. Akordio haren indarraldia bakarrik 2013rako finkatu zen, hain zuzen ere, Udaltzaingoaren antolaketa berriaren prozesua ( organigrama, lanpostuen funtzioak eta balorazioa) amaitu bitartean.

Batzordekideei akordio haren berri eman zaie, eta Pertsonal arloko zinegotziak adierazi duenez, organigrama eta lanpostuen funtzioak amaitzeke daude; balorazioaren prozesua, aldiz, oraindik hasi gabe dago.

Ikusita Koordinazio informazio-batzordeak aurrez, aho batez, aldeko irizpena eman duela, Udalbatzarrak, aho batez,

### **ERABAKI DU**

2014rako ere onartzea 2013rako onartu zen UDALTZAINGOKO LAN BALDINTZEN INGURUKO AKORDIOA, baldintza eta ezaugarri berdinetan, antolaketa berriaren prozesua (organigrama, lanpostuen funtzioak eta balorazioa) amaitu bitartean.

## **6.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK**

**– Kontzebituaren bizia eta haurdunaren eskubideak babesteko Lege Aurreproiektuari buruzko mozioak**

- a) Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek
- b) PSE-EE taldeak
- c) EAJ-PNV taldeak
- d) Bildu taldeak eta Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek

Udal talde aurkezle bakoitzeko bozeramaileak adierazi du aurkeztutako mozioa erretiratu egiten duela; eta, haien ordeztu, beste hau aurkeztu dute:

BILDU, EAJ-PNV, PSE-EE ETA ARALAR-EZKER ANITZA UDAL TALDEEK  
ADOSTUTAKO MOZIOA:

**HAURDUNALDIA BORONDATEZ ETETEARI BURUZKO LEGEAREN  
ALDARAZPENARI BURUZKO MOZIOA**

**ZIOA**

Emakumeek amatasunaren gaian duten erabakitzeko eskubidea funtsezko eskubidea da. Ezin da erabakitzeko eskubide hori eztabaidan jarri.

1985ean abortoaren despenalizazio partziala eman zen estatuan, PSOE agintean zela. 25 urte beranduago, 2010ean, haurdunaldiaren borondatezko etetea arautzen zuen lege aurreratuago bat onartu zen, oraindik ere muga askorekin.

Martxoaren 3an onartutako 2/2010 lege organikoa, sexu eta ugalketaren osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa, adostasun sozial eta politiko zabalarekin onartu zen duela lau urte.

2014an, PP-k aurreproiektu murriztaile eta atzerakoiak planteatzen jarraitzen du, estatu mailako legedian 30 urte baino gehiagoko atzera pausua eragin nahian. Honek, gainera, urratu egiten ditu estatuak emakumeek beren amatasuna erabakitzeko duten eskubideari buruz nazioartean hartutako konpromezuak.

Araudi honek erabateko gaitzespen soziala eragin du herritarren artean, baita erakunde sozial, profesional eta feministetan ere.

**MOZIOA**

Zarauzko Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen erretiratu dezala sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoaren erreformarako aurreproiektua.

Udalbatzarrak, gehiengoz, transkribatutako mozioa onartzea ERABAKI DU.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu andreak hala aginduta, bilkurari amaiera eman zaio, gaueko bederatziak hogeita bost gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.